

DOKTRINA ESKOLAN

Francok ikasle eta irakasleak baliatu zituen totalitarismoa sustraitzeko

 **GIZARTEA /** Oihane Larretxea de la Granja

Doktrinamendu eta izuaren bidez, frankismoak Erlijioa eta Aberria (espainiarra) oinarri zituen hezkuntza eredua txertatu zuen. Euskal Herrian jazarpena are handiagoa izan zen: lurraldetasunarekin eta euskararekin zerikusia zuen guztia desagerrarazi beharra zegoen. Donostian, «Arbel beltza» erakusketak hori guztia jaso du.

Nazio Batuek, 1948. urteko abenduan, hezkuntza funtsezko askatasuntzat jo zuten, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean. «Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du», zioen onartutako testuak.

Adierazpen hau onartu zenerrako, urteak ziren Estatu espainiarrean izu, errepresio eta doktrinamenduaren bidez, frankismoak bere hezkuntza sistema propioa indarrean jarri zuela. «La letra con sangre entra»

[Letra odolez sartzen da] printzipioari jarraituz, besteak beste, sistemak bitan banatzen zituen neskak eta mutilak, onak batetik, eta gaiztoak bestetik, eta, hala, ikasle gaiztoei maiz zigor fisikoak ezartzen zizkien.

Gertuko historiaren atal ilun hauek dokumentatu eta bai irudiekin bai garaiko objektu esanguratsuekin ilustratu dituzte Juantxo eta Iñaki Egaña anaiek. Erakusketa Donostiako Aiete auzoko kultur etxean dago ikusgai, datorren martxoaren 13ra bitartean.

«Arbel Beltza»k, hala du izena erakusketak, begiak zabalduko dizkie askori, harridura sortuko die, mina, jakingura, ezinegona... eta galdera asko. Zergatik? Beste askori, aitzitik, pasadizook beren larruan sufritu zituztenei, jasandako mina berpiztuko die.

Garraztasunez, tristuraz, inpotentziaz.

Aretoa txikia da, baina edukiz josita dago. Hain zen mardula lortu zuten dokumentazio kopurua, beste erakusketa batzuk antolatzeke adina baitzegoen. Hala esan dute Egaña anaiek, beraiekin egindako bisitan. Ildo horretan, Juantxo Egaña argazkilariak aipatu du oso zaila egin zitzaiola ehunka argazkiren artean hautaketa egitea. Beste hainbeste gertatu zitzairen garai hartan ikasgeletan erabiltzen ziztuzten liburuekin. «Liburutegi bat osatzeko adina!», esan dute. Zorionez, beraz, bada dokumentazio nahikoa urte haien lekukotasuna bermatzeko.

IRAKASLEAK, JOPUNTUAN

Francisco Francoren diktadura ez zen salbuespena izan eta, Adolf Hitlerrek Alemanian eta Benito Mussolinik Italian egin zuten legez, hezkuntza baliatu zuen sistemaren printzipioak sustatzeko. Haurren malgutasunari, alegia, hauek manipulatzeko eta kontrolatzeko erraztasunari esker –neurri handi batean, adin horretan izaten den inozentzia eta defenditzeko gaitasun eskasagatik–, erregimena ikasgeletan sartu zen.

Bigarren Errepublikan sustatu zen hezkuntzaren doakotasuna eta laikotasuna amaitu egin zen, tropa frankistak Euskal Herrira

1.- Ume euskaldun errefuxiatuentzako klaseak, Orthezeko haurren aterpean (1938. urtea). Euskadiko Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntza Sailaren Funtsa.

2.- Maitasun Errukiorreko Mirabeen Eskolako lekaiameak, Donostian (1955. urtea). Kutxateka. Marin Funtsa.



ailegatu bezain pronto. Iñaki Egañak erakusketa hornitzeko idatzi duen liburuxkan –aretoan bertan dago salgai– kontatzen duenez, Jose Maria Arellanok, Gipuzkoako lehen gobernatzaileak eman zuen lehen agindua eskola publiko guztietako liburutegiak ikuskatzea izan zen. «Erljioaren eta kristau-moralaren printzipio onetatik urrun dauden edo ikasleek Aberri bakar eta zatiez in bat gurtzea bultzatzen ez duten lan guztiak suntsitu egingo dira», adierazi zuen.

Maisuak eta maistrak «garbiketaren» helburu nagusietako bat izan ziren, eta, honenbestez, biktima zuzenak. Era berean, altxamendua babestu eta leial jokatu zutenek ardura handiko postuak lortu zituzten.

Gipuzkoan, frankismoak guxtienez bost maisu exekutatu zituen: Ángel Iturmendi, Miguel Irastorza, Daniel Garrido, Cosme Yagüez eta Trino Aguirre. Araba eta Nafarroan, bereziki gogorra izan ezen errejimena irakasleekin. Gutxienez, eta hurrenez hurren, 6 eta 28 exekutatu zituzten.

Garai hartako prentsan idatzitako artikuluen batean, asmo krudelak zeintzuk ziren argi utzi zuen Ramón Sierra Gipuzkoako gobernadore militarrek: «Zuen izenak ezabatuko ditugu, eta hainbat belaunalditan madari-

Euskal eskolaren eraldaketan, agintariak gehiago kezkatu ziren irakasleak eta ikasleak «garbitzeaz» eta doktrinatzear, hezkuntza sistema bat eraikitzeaz baino

Egunero, 17:00etan, eskola eteten zen, Arrosario Santua erreztatzeko. Ricardo Ugartek dioenez, ‘Cara al sol’ kantatzera behartzen zituzten, bandera nazia igotzen zuten bitartean

katuko dituzte. Mapetan Euskadi izeneko amarru hori marra berde batez adierazten duen maisurik badago, atzerriratu egingo dugu», mehatxatu zuen.

Hilarior Murua historialariaren arabera, Iñaki Egañak jaso duenez, euskal eskolaren eraldaketan agintariak gehiago kezkatu ziren irakasleak eta ikasleak «garbitzeaz» eta doktrinatzear, hezkuntza-sistema bat eraikitzeaz baino. Aurrerantzean, bi izango ziren hezkuntzaren zutoinak: Erljioa eta Aberria (espainiarra). Eliza hezkuntzan txertatu zen, bete-betean.

Ikur jakin batzuek ikasgeletan indar handia zuten, eta nahita ez, legeak hala agintzen zuelako, gurutzeak, bandera hori-gorriak eta Francoren erretratuak paretetan zintzilik egon behar zuten. Miguel Primo de Rivera Falangearen sortzaile izan zenaren irudiak ere alboan egon behar

zuen. Haurren betebeharra, hauek goratzea zen. Bizkaia izan zen armada frankisten eskuetan geratu zen azken lurraldea, 1937ko ekainean. Hilabete gutxi geroago, lege batek betebeharroriek jaso zituen: «Beharrezkoa da Bizkaia osasuntsu, kristau eta espainiar honek jainko gabekoak eta aberri gabekoak garbitzea, kristori hartutako zorrra ordaintzea, eta solemnitater osoz, Espainiako seme ugariengandolez bustita bere magalera itzuli den gurutzefika hori berriz jartzea».

ELIZAREN MONOPOLIOA

Elizak, Estatuaren funtzioak ordetuz, indartzea lortu zuen. Lehen Hezkuntzari eragiten zion 1945eko lege batek Eliza Falangearen gainetik jarri zuen.

Donostiako erakusketan hainbat testigantza biltzen dira, tartean, Ricardo Ugarte eskultore pasaitarrarena. Urteak igaro arren, xehetasunez oroitzen ditumetan eta gartzetan ikasgelean bizitakoak.

Gogoratzen du egunero-egunero eskola eteten zela, arratsaldeko bostetan Arrosario Santua erreztatzeko, baita ‘Cara al sol’ kantatzera behartzen zizutela ere. Une hartan, «trapu bat» ateratzen zutela ere gogoratzen du: bandera nazia zen. Igandetan ere mezara joan be-

harra zegoen, nahitaez, «bestela zigorra zetorren».

Teodora Sevilla Eskola Nazionalako ikasleak halako egoerak bizitu zituen, eta onartzen du kantatzen zutena zer zen jakin gabe abesten zutela. «Belarrondokoak, zaplastekoak, zigorrak... hori zen ordaindu beharrekoa agintzen zutena egiten ez bagenuen», kontatu du.

Zer abesten zuten jakin gabe, gauza asko ikasgarazi zitzaizkien garai hartako neska-mutilei. Esaterako, Espiritu Nazionala zelakoa, baita militarren izen-abizenak, lekuak, datak, errege bisigodoen zerrenda eta erlijio katolikoaren oinarritzko otoi-tzak ere. «Historian bazeuden ulertzen ez genituen gauza asko, baina ez ginen galdetzera ausartzen». Buruz ikasi, errepi-katu eta gainerakoan isilik egon behar.

Erljioak zehaztutako egutegia ere oroitzen zuten ikasgeletan, eta hamaika ziren gorazarre egiteko egunak: Aita Santuaren Eguna, Jesusen Bihotzaren Eguna, Misioen Mundu Zabaleko Igandea, Amaren Eguna... «Maria Umearen eguna ere oroitzen genuen –gogoratzen du Sevillak–. Egun hartan, neska aberatsak txokolatzeko opilak banatzen zizkiguten pobreak ginenoi. Umiliagarria zen».

Sistema ere arduratzen zen ikasleen artean ezberdintasu-

3.- Begoña, Arantxa eta Maritxu Mugika ahizpak, haien ama Franciscaren ondoan. Caracaseko ikastolako maistrak ziren (1957. urtea). Begoña García Funtza

4.- Jean Hiriart eta Argitxu Noblia, Arrangoitzeko, Ipar Euskal Herriko lehen ikastolako, ikasleekin batera (1969. urtea). Daniel VELEZ



nak egiteaz, klase sozialaren arabera. Sevillak deskribatzen duenez, uniformeak berdinak ziren guztientzat, baina, adibidez, neska dirudunak aterpean zeuden eskaileratatik igotzen ziren eskolara; txiroak zirenak, berriz, aldapatik.


Bazeuden beste gauza iraingarri asko, eta mojek askotan zerikusi handia izaten zuten horrekin. «Batzuk gaiztoak ziren, besteen aurrean barregarri uztea gustatzen zitzairen. Halakoe-tan ikusten genuen nor zen pertsona ona, eta nor bizi zen erresuminduta».

Egañak kontatu duenez, Elizaren monopolioak irakaskuntza pribatuaren loraldia eragin zuen. Errepublikaren aurretik ere hedatuta zeuden La Salle anaien ikastetxeek beste ordena batzuen lehia izan zuten. 1951. urtean, Euskal Herriko irakaskuntzaren %80 inguru erlijio-ordenen esku zegoen. Gainerakoak, Eskola Nazionalak delakoen eskuetan. Urte hartan, 346 ikastetxe pribatu zeuden euskal lurraldeetan, 88 mutientzat eta 258 neskentzat.

EMAKUMEA, GARBITZEKO JAIOA

Apaizek ere iraintzen zituzten neskatoak, emakume izate hutsagatik. Umea zela, sekulako astakeriak entzun behar izan zituen Sevillak, baita garai hartako beste haur askok ere. «Meza ematen zigun apaiz batek publikoki onartzen zuen emakumeak gorroto zituela, eta geure patua fregatzea zela esaten zuen behin eta berriz».

Sistemak izugarritzko atzerakada ekarri zuen emakume eta neskatoentzat. Falangeak Sekzio Femeninoa sortu zuen, eta Pilar Primo de Rivera, diktadorearen alaba, izan zen agintari gorenena. Hala baieztatzen zuen: «Emakumeek inoiz ez dute ezer deskubritzen. Zalantzarik gabe, Jainkoak gizonezkoen adimenerako gordetako talentu sortzailea falta zaie. Gizonek eginda ematen digutena hobeto edo okerrago interpreta dezakegu soilik emakumeok». Zer ez zuten esango eta pentsatuko gizonezkoek beste sexuaz, Pilar bera emakumea



izanik hitzok adierazteko gai bazen...

Emakumea betiereko tentazioa zela azalduz, honen purutasuna sustatu eta ikasleak ezkontzarako prestatzen zituzten. Horixe zen lehen helburua. Hurrengo, eta garrantzitsuetan garrantzitsuena, amatasuna.

Erregimenaren ustez «egokia» zena ikasten zutela ziurtatzeko, «Etxea» (*Hogar*) deitutako ira-

Emakumeen egoerak atzerapauso handia izan zuen. 'Etxea' irakasgaian, etxeko ekonomia, sukaldaritza eta josten erakusten zitzairen. Ezkontza eta amatasuna, bere betebeharrak.

«Gose handia zegoen –dio Ugartek–. Oroitzen naiz mutiko batek jan berri zuen sagarraren zuztarra lurrera bota eta, lasterka, beste batek lurretik jaso zuela, zuztarra jateko».

5.- Liburuak erretzen, Donostiako Garibai kalean, 1936ko irailaren 14an, tropa frankistak hirian sartu ondoren.

Kutxateka. Marin Funtza.

6.- Elbira Zipitria Irastorza, frankismoaren garaiko lehen ikastolako maistra, ikasleekin batera Urgull mendira maiz egiten zituen irteeretako batean (1953. urtea).

Andoni ZINKUNEGI

kasgaia prestatu zuten: etxeko ekonomia, sukaldaritza, josteta eta eskulanak irakasten zitzaizkien neskatoei, besteak beste.

IKASTOLEN SORREIRA

Ikasleak eredu jakin baten baitan hezteaz gain, garrantzitsua zen maisuak eta maistrak izango zirenen hezkuntza arautu eta diseinatzea. 1945. urtean onartu zen Hezkuntza Legeak, besteak beste, beren eginkizuna «hezi-tzaile orenen sentimendu erlijiosoa eta giza sentimendua piztea» zela jasotzen zuen, baita «Aberriaren batasuna zerbitzatu duen benetako espiritu nazionala eratzea» ere.

Elizako hierarkiak berak zuzentzen eta antolatzen zuen irakasleak prestatzeko eredua. Eskola Nazionalako irakasle izateko, bi urteko ikasketak egin behar ziren, eta hirugarrena zentro batean egindako praktikekin osatzen zuten.

Francok ikastolak gerra garaian itxi zituen, ofizialtasunik gabe, ildo horretan hutsu-



nea zegoen eta diktadura bete-betean zegoela, klandestinitatean aritzea beste irtenbiderik ez zuten izan hainbat irakaslek.

Ziur asko, Elbira Zipitriarena da kasu ezagunenetako bat. Irakasle honek, ezkutuan, Donostiako Alde Zaharreko Fermin Calbeton kalean zuen etxe txikian hezten zituen neska-mutirik, 1943. urteaz geroztik, baina Gerra Zibilaren aurreko mugimenduan parte hartu zuen.

Mari Karmen Mitxelena irakasle ohiak oso gertutik ezagutu zuen, berarekin egin baitzituen urtebeteko praktikak. «Irakasteko modu hura niretzat deskubrimendu bat izan zen, izugarria izan zen esperientzia, haurrekin izaten genuen egunerokotasuna».

Poliziaren bizkarrera ibiltzen ziren eta hauek, susmoak eraginda, ate joka joaten ziren Zipitriarenera. Umeak korrika batean ohearen azpian ezkututzen zituzten. «Itogarria zen jasaten genuen jazarpena, eta 1968. urtearen inguruan, ikusi genuen

7.- Elbira Zipitria (ezkerrean) eta Begoña Goya irakasleak. Egile ezezaguneko idazkiak, Santa Maria elizak Orixeko Kultur Elkarteari euskara irakasteko utzi zizkion lokaletako arbelean. (1968. urtea).
 Mari Karmen Mitxelena Funtsa

8.- Maitasun Errukiorreko Eskolako ikasleak, 'Etxea' (Hogar) izena zuen irakasgaietan, josteta lanetan (1955. urtea).
 Kutxateka. Marín Funtsa.



Gipuzkoako gobernadoreak hala esan zien irakasleei: «Zuen izenak ezabatuko ditugu eta mapetan Euskadi izeneko amarrua adierazten duenik badago, atzerriratu egingo dugu»

Elbira Zipitriak bere etxean ematen zituen eskola klandestinoak. Poliziak atea jotzen zuenean, ikasleak ohe azpian ezkututzen zituen. Lekuz maiz aldatzen zuten, agenteak despistatzeko

zituzten kemena eta ausardia goraipatu ditu. Beste askok, ordea, ez zuten, hala nahi arren, horretarako aukerarik izan. Ugartek nostalgiaz gogoratzen du amak zekien euskara «bikaina». «Etxean, ordea, ez genuen sekula erabili, beldurragatik; zelatari asko zegoen. Tamalez, euskarari dagokionez, belau-naldi galdua izan gara», esan du eskultoreak.

Eskola Nazionaletan ere euskara zekienaren aurkako jazarpena zegoen. Sevillak San Bartolomeko mojetan, bere eskola berean zegoen neskatxa baten kasua gogoratzen du oraindik orain. Herri batekoa zen eta baserritik heldu zen. Gaztelaniaz hitz erdirik ere ez zekien. «Asko sufritu zuen honen ondorioz, ez zelako eskola bakar bat jarraitzeko gai. Jolasteko ere ez zen gurekin elkartzen, integratu beharrean, arraro sentiarazten zuten, bakartu egiten zuten».

Jose Mari Arrazolak maitasun handiz gogoratzen du irakasle izan zuen Zipitria, baita 40 metro koadro baino gehiago ez zituen Alde Zaharreko etxea ere. «Lau talde zituen, bost haur baikoitzean», oroitu du. Metodologiaren gogoratzen da, irakasten zizkieten euskal kanta zaharrez, besteak beste. «Kantatuz ikasten genuen». Urgull mendira ere igotzen ziren, astean behin gutxi gorabehera. Alboan zuten, aprobetxatu egiten zuten, adibidez, liburuetan agertutako hostoak eta zuhaitzak bertatik bertara ikusteko.

1959-1960ko ikasturtean, Gipuzkoako lehenengo hiru ikastolak sortu ziren, 60 ikaslerekin, baina oraindik klandestinitatean jardun behar izan zuten, eta lekuz aldatuz etengabe, poliziak ez atzemateko. Loraldia hurrengo hamar urteetan etorriko zen, eta Gipuzkoaz harago, izan ere, 1969an, Seaskaren babespean, Ipar Euskal Herrian ere hiru ikastola ireki ziren. Garai hartan 8.000 ikasle zeuden Gipuzkoan, 3.500 Bizkaian eta 1.500 Araban eta Nafarroan. Baita diasporan ere, gerraren eraginez alde egin zuten herrialdeetan euskararen hazia erein baitzuten hainbat pertsona kementsuk.

horrela ezin genuela jarraitu», errekonozitu du. Egoera muturrekoa zenez, gurasoek euren etxeak eskaintzen zizkieten, polizia despistatu eta eskolak eman ahal izateko.

Euskararekin zerikusia zuen oro desagerraraztea zen asmoa, eta helburu hori lortzeko ahalginak egiten zituen erregimenak. Mitxelenak guraso bartzuek zentzu horretan azaldu